



EBAZPENA (04/2011 esp., PRENTSA-BANAKETA BIZKAIAN)

Osoko bilkura

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 30a

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Antón Bikandi Arana jauna txostengile dela, ebazpen hau egin du PRENTSA-BANAKETA BIZKAIAN gaiari buruzko 04/2011 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, Joaquín Carrasco Maroto jaunak, PRENTSA ETA ALDIZKARI SALTZAILEEN BIZKAIKO ELKARTEAREN izen eta ordezkartzan, ipini zuen salaketa baten ondorioz. Salaketa horren bitartez, Lehiaren Defentsari buruzko Legean debekatutako jokabideak ustez egin izana salatu zen.

AURREKARIAK

1. 2011ko ekainaren 2an Joaquín Carrasco Maroto jaunak, PRENTSA ETA ALDIZKARI SALTZAILEEN BIZKAIKO ELKARTEAREN izen eta ordezkartzan, ipini zuen salaketa sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan (aurrerantzean LDEZ).
2. Honakoa adierazi zen salaketa horretan:

BERALAN, S.L. argitalpen eta aldizkariak banatzen dituen Bizkaiko enpresa garrantzitsua da, eta eksklusiban banatzen ditu zenbait titulu —*El Correo, El País, El Mundo, Diario Montañés, La Razón, ABC, Cantera*, kirol-aldizkari guztiak eta Z taldeko aldizkariak—. Hori dela eta, errekursoa aurkeztu duen elkarte osatzen duten saltzaileek nahitaez jo behar dute enpresa horretara aldizkari horiek eskuratu eta erabiltzaileei eskaini ahal izateko eta, beraz, nagusitasunezko egoera eztabaidaezinean dago salatutako enpresa.

Banatzaileak hornikuntza-kontratua sinatzen du salmenta-puntuekin, eta bertan zehazten dira betebeharrak: fidantza, ordaintzeko modua, etab.



Bizkaian dauden hainbat kioskok “azpibanaketa” izenekoa egiten dute, banatzaileak jakin eta onartuta. Horrela, prentsa saltzaile horiek materiala ematen diete inguruko okindegiei, komisio baten truke, eta horiek ere banatzaile bihurtzen dira. Lotutako merkatu bat sortzen da — okindegiena— eta honek lehiatzeko dituen baldintzak ez dira berdinak, besteak beste okindegiekez diotelako kanonik ordaintzen Udalari, ez diotelako fidantzarik ematen banatzaileari, eta ez dutelako bigarren jarduerarengatik ordaintzen.

BERALAN, S.L.k baldintza orokor batzuk ezartzen ditu bere zerbitzuak kontratazeko baina, hala ere, mesede egiten die euren kabuz sal ditzaketenak baino aldizkari gehiago ezkutuan erosi eta jarduera horretakoak ez diren hirugarrenei ematen dituztenei. Hirugarren horiek etekina ateratzen dute, banatzaileak baimendutako salmenta-puntuaren betebeharrak bete behar izan gabe, eta horrek lehia desabantaila eragiten du.

Jokabide horren ondorioz, handiak izan dira salmenta-puntu batzuek izan dituzten galera ekonomikoak, eta batzuetan jarduera etetea ere eragin da.

Uste du deskribatutako gertakariak Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 2.d) artikuluan koka daitezkeela. Honakoa dio artikulua horrek: *Debekaturik geratu da enpresa batek edo batzuek duten nagusitasunezko posizioa gehiegikeriaz ustiatzea merkatu nazional osoan edo horren zati batean.* Hain zuzen ere, uste du baldintza desberdinak aplikatzen direla prestazio baliokideetarako, eta horrela lehiakide batzuek desabantailak dituztela beste batzuekin alderatuz.

3. 2011ko ekainaren 15ean, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariaren ebazpenaren bidez erabaki zen informazio erreserbatua hasiko zela, hala balegokio, bidezko zehapen-espeditzea hasi aurretik, salatutako gertakariak egiazkoak ziren egiaztatzearen, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.
4. 2011ko irailaren 28an informazio hau eskatu zion LDEZk BERALAN, S.L.ri:
 - “Adierazi zure enpresak banatzen dituen produktuak eta banaketa hori eskusiban egiten duen.
 - Adierazi zuen produktuak banatzeko eremu geografikoa.
 - Zuen enpresak baimendutako salmenta-puntuen zerrenda.
 - Beralan, S.L.k prentsa eta aldizkarien salmenta-puntuekin sinatutako eredu-zko hornikuntza-kontratuaren kopia.
 - Halakorik egonez gero, aurkeztu Beralan, S.L.ren eta baimendutako salmenta-puntuen arteko merkataritza-harremana arautzen duen beste edozein agiri.



- Adierazi prentsa azpibananatzeko aukera ematen dien baimendutako salmenta-puntuei. Erantzuna baiezkoa bada, eman arrazoiak.”
5. 2011ko urriaren 11n BERALAN, S.L.k bidalitako idazkia sartu zen LDEZn. Eskatutako informazioa eman eta honakoa adierazi zen bertan:

“BERALAN,S.L.k gaur egun ez du arautzen bere bezero diren enpresek duten antolaketa ez salmentak antolatzeko modua: salmentak BERALAN,S.L.ri izendatu zaion dendan bakarrik egiten diren (argi duen bakarra) ala bertatik kanpoko salmenta-puntuetara ere zabaltzen diren (bezeroaren jabetzakoak zein hirugarrenen batenak izan); establezimenduan bakarrik saltzen eta entregatzen dituzten produktuak ala azken hartzailearen etxean entregatzen duten produktua, etab.

BERALAN, S.L.ren bezero baten eta hirugarren baten jabetzako establezimenduko salmenta-puntuaren artean egon litekeen harremana, horrelakorik egonez gero, euren artean ezar litezkeen itunen bitartez egongo da araututa. Itun horiek ez dute inolako zerikusirik BERALAN, S.L.rekin, eta honek ez du horien berri, hirugarren horiek nortzuk diren eta establezimendua non duten ere ez dakiela (benetan horrelakorik egonez gero). Hori dela eta, BERALAN, S.L.k salmenta-puntu edo establezimendu bakar batean ematen ditu salgaiak eta biltzen ditu itzulketak, hau da, bezeroak izendatutako lekuan. Bezeroari bakarrik ematen dio arreta (atzerapenak, sustapenak, erreklamazioak, etab.) eta bezeroari bakarrik fakturatu eta kobratzen dio. Beraz, ez ditu salmenta-baldintza ezberdinak ezartzen bezeroekin egiten duten erosketa-bolumenaren arabera. Horrenbestez, bezeroren batek salmenta-bolumen handiagoa izateak ez ditu kontratazio-baldintzak aldatzen, eta gure madatugilearen ustez nabaria da bezeroak hirugarrenekin egin lezakeen edozein itun, benetan egiten badu, bere merkataritza-tartearen pentzura izango dela nolana ere, eta nire mandatugileak ez du uste horrek abantailarik dakarrenik, eta badaki ez dela BERALAN, S.L.ren jardunbidea.”

6. 2011ko azaroaren 2an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak egindako ebazpen-proposamena bidali zion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honi. Bertan LDEZk LDEAri proposatu zion salaketa artxibatzeke eta zehapen-espediterik ez irekitzeko salatu zen jokabideari zegokionez.
7. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak 2011ko abenduaren 30eko batzarrean eztabaidatu eta erabaki zuen gaia, Joseba Andoni Bikandi Arana jauna zela txostengilea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

8. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.3. artikulua honako hau dio: *Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak,*



Ikerketen Zuzendaritzak proposatuta, lege honen 1, 2, eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastera erabakitzeak aukera izango du, eta ordura arteko jarduerak artxibatzeak aukera, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.

9. Lehiaren Defentsari buruzko legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, *Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean.*
10. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak (Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri zituen Dekretua aldatu zuen martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuak aldatu zuena), alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua bereizten ditu. Biak beren eginkizunei dagokienez Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak ezarritakora egokitu beharko dira. Hala, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari dagokio jarduerak artxibatzeari buruzko ebazpena ematea, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela uste duenean, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 44. artikuluaekin bat etorriz.
11. Salatzailleak adierazi du banatzaileak nagusitasunezko egoera duela, eskusiban banatzen baititu zenbait titulu —*El Correo, El País, El Mundo, Diario Montañés, La Razón, ABC, Cantera*, kirol-aldizkari guztiak eta Z taldeko aldizkariak—. Hori dela eta, Elkarteko kideek nahitaez jo behar dute enpresa horretara aldizkari horiek eskuratu eta erabiltzaileei eskaini ahal izateko.

Aipatutako elkarte profesionalak adierazi du BERALAN, S.L. merkataritza-etxeak badakiela, eta onartu egiten duela, Bizkaiko zenbait kioskok (berak banatzen dizkie egunkariak) prentsa “azpibanatzen” diela inguruko okindegiei, komisio baten truke. Salatzaillearen iritziz jarduera horrek urratu egiten du Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2.2.d artikulua, nagusitasunezko egoeraren abusua egiten baitu, merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan baldintza ezberdinak ezartzen dituelako baliokideak diren prestazioentzat, eta horrek lehiatzaile batzuei desabantailak eragiten dizkielako beste batzuen aurrean.

12. LDEZren ebazpen-proposamenak dio, salatutako gertakariak ikusita, ez dela ikusi Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen aginduak hautsi izanari



buruzko zantzurik. Hori dela eta, zehapen-prozedurarik ez irekitzeko proposatu zaio LDEA honi.

Hona hemen, labur-labur, LDEZk ebazpen-proposamena oinarritzeko erabili dituen argudioak:

- a) Honakoa da salatu den jokabidea: merkatari bik egindako itun edo kontratua, horren bitartez batak konpromisoa hartu duela besteari egunkari edo/eta aldizkari kopuru jakin bat emateko, azken horrek komisioa jasotzearen truke salduko dituela.
- b) BERALAN, S.L.k salmenta-puntuaren titularrekin (kioskoak, liburu-dendak, estankoak, gasolindegia, etab.) sinatzen duen kontratua ez da ezarri "azpibanaketa" debekatzen edo zigortzen duen klausularik. BERALANek ez du debekatzen berak banatutako produktuak baimendutako salmenta-puntuetatik kanpo saltzea, eta ez du eskatzen produktuok baimendutako salmenta-puntuetan saltzea. Banatzaileak ez du arautzen bere bezero diren enpresek duten antolaketa ez salmentak antolatzeko modua.

BERALANek, aipatutako merkataritzaren etxeak bere esku ipintzen dituen egunkari eta aldizkariak saltzeko asmoz, bere bezero izan nahi duen orori aplikatzen dizkion merkataritzaren baldintzak berdin-berdinak dira guztientzat. Banaketa-etxearen aurreko betebeharrak beteko dituztela bermatzeko salmenta-puntuak eratu behar duten abal edo fidantzarik dagokionez, ezberdina da merkataritzaren etxeak banatzen dizkien egunkari eta aldizkariaren kopuruaren arabera.

- c) "Azpibanatzen" duenak prentsa/aldizkariak dagoen salmenta-puntuaren bakarrik saltzean irabaziko lukeena baino gehiago irabazten du eta, bestalde, "azpibanaketa" jasotzen duenak kontratua zuzenean BERALAN, S.L.rekin sinatuta irabaziko lukeena baino gutxiago irabazten du.

13. LDEA guztiz dator bat LDEZk egindako ebazpen-proposamenarekin eta bere oinarriekin, jarraian azalduko diren arrazoiak direla eta.

14. *United Brands-en* epaitik, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak (EEJA) honela definitu izan du nagusitasunezko egoera: *"enpresa batek duen indar ekonomikoko egoera, erreferentziako merkatuan lehia eraginkorra mantentzea eragozteko aukera ematen diona; horrela, aukera du hein handi batean nolabaiteko independentziaz jarduteko bere lehiakide, bezero eta, azken finean, kontsumitzaileekiko"*.¹

¹ EEJAren Epaia, 1978ko otsailaren 14koa, 27/76 Gaia. *United Brands Company vs. Batzordea*. 65. atala.



Nagusitasunezko egoera egotea bateragarria da neurri bateko lehia egotearekin, baina aukera ematen dio nagusitasunezko egoera duen enpresari eragin nabarmena edukitzeko lehia hori garatzen den balditzen gainean².

Lehiaren Defentsari buruzko Legean, 2. artikulua ia hitzez hitz jasotzen du EEIko 82. artikularen (EBFTren 102. artikularen) edukia. Dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak eta LBNk EEIko 82. artikulari buruz (EBFTren 102. artikulari buruz) Batasunean edukitako erabaki jardunaren eta jurisprudentziaren arabera interpretatu dute nagusitasunezko egoeraren kontzeptua. *Bacardi*-ren 1999ko Ebazpenean, LDAk, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen esparruan, EEJAK *United Brands-en* Epaian ezarrita zuen nagusitasunezko egoeraren definizioa hartu zuen.

15. BERALAN, S.L. enpresa (aurrerantzean BERALAN) argitalpen eta aldizkariak banatzen dituen enpresa da. Bizkaiko lurralde-eremuan egiten du banaketa, eta eskusiban banatzen ditu oso hedatuta dauden egunkari eta aldizkari batzuk, esaterako *El Correo*, *El País*, *El Mundo*, *Marca*, *Mundo Deportivo*, etab. Ez dago zalantzarik: egunkari eta aldizkariak banatzeko eskusibotasunaren alorrean BERALANek nagusitasunezko egoera dauka, monopolio-egoera, bera baita Bizkaiko Lurralde Historikoan gehien saltzen diren argitalpenen eskaintzaile bakarra. Dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak³ eta egungo LBNk⁴ diote eskusiban banatzen duten enpresek nagusitasunezko egoera dutela.

Horrek esan nahi du banatzaileak ez duela lehiakiderik eta, ondorioz, saltzaileak ez duela eskaintza alternatiborik eta banatzaile bakar batekin egin behar dituela tratua bere argitalpen-funtseko argitalpenez hornitzeko.

16. Gogoan izan behar da, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren doktrinak behin eta berriz azaldu duenez eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, enpresa batek nagusitasunezko egoera izateak ez duela berez gaitzesteko moduko egoerarik eragiten. Esan nahi duen gauza bakarra da, nagusitasunezko egoera hori izateko arrazoiak kontuan izan gabe, enpresa horrek erantzukizun berezia duela bere jokabideak merkaturan benetako lehia (eta ez faltsutua) eragozteko saihestu ahal izateko.⁵

² EEJAren Epaia, 1979ko otsailaren 13koa, 85/76 Gaia. *Hoffmann – La Roche vs. Batzordea*. 45. atala: “Horrela definitu den nagusitasunezko egoerak ez du eragozten nolabaiteko lehia egotea (monopolioaren edo ia-monopolioaren egoerak eragin lezake hori) baina aukera ematen dio egoeraren etekina ateratzen duen enpresari, ez baldintzak zehazteko, baina bai lehia hori garatzeko baldintzetan eragin nabaria izateko eta, nolahi ere, hori guztia kontuan hartu gabe jarduteko”.

³ Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren 2004ko otsailaren 10eko Ebazpena, Espte.: R 564/03, DISTRIBUIDORA PEÑA SAGRA.

⁴ 2011ko ekainaren 30eko Ebazpena, Espte.: SA Can 0009/10 DISTRIBUCION PRENSA Y REVISTAS.

⁵ Auzitegi Gorenaren 2009ko azaroaren 11ko epaia eta Auzitegi Nazionalaren 2008ko apirilaren 21eko epaia.



Salatzaileak azaldutako kasuan balioztatu behar da BERALAN merkataritza-etxeak bere argitalpen-funtsa osatzen duten egunkari eta aldizkariak eskusiban banatzeko merkaturaren duen nagusitasunezko egoeratik kontuan izan duen erantzukizun berezi hori bere jokabideak merkaturaren benetako lehia eragozteari saihestu ahal izateko ala, aldiz, nagusitasunezko egoeraren abusua egin duen prentsa-saltzaileekin dituen kontratu-harremanetan.

17. BERALAN banatzaileak, eskusiban banatzen dituen egunkari eta aldizkariaren ahalik eta ale gehien helarazteko kontsumitzaileei, hirugarrenekin kontratatzen du produktu horren salmenta. Hirugarren horiei salmenta-puntu esaten zaie, eta BERALANek merkataritza-harremana ezartzen du horiekin aipatutako merkataritza-etxearen funtseko egunkari eta aldizkariak hornitzeko. Salmenta-puntuak ez dute ezaugarri homogeneorik. Ezaugarri hori dute prentsa-kiosko tradizionalak, salatzaileak dioten bezala, baina baita hain ezberdinak diren beste establezimendu hauek ere: ostalaritzako establezimenduak, gasolina-zerbitzuguneak, estankoa, egokitasuneko dendak, etab.

Gauzak horrela, zehaztu egin behar da egunkari eta aldizkariaren salmenta-puntuaren kontzeptua ez dela prentsa-kiosko tradizionalarekin bakarrik identifikatu behar, baizik eta beste hainbat establezimendurekin: gasolindegia, estankoa, egokitasuneko dendak, ostalaritzako establezimenduak, etab., baita okindegiak ere, produktua errazago eskuratzeko aukera ematen diotela kontsumitzaileari. Beraz, aldeko iritzia eman behar da lehiaren ikuspegitik, BERALAN merkataritza-etxeak (monopolio egoera duela bere argitalpen-funtseko egunkari eta aldizkariak eskusiban banatzeari dagokionez) ez dielako mugarik ezartzen produktu hori merkaturatzeko hornitzea nahi dutenei. Gainera, kontuan izan behar da BERALAN, S.L. merkataritza-etxeak salmenta-puntu izenekoekin egiten duen hornikuntza-kontratuaren baldintzak homogeneoak direla guztientzat, baldintza juridiko eta ekonomiko berberak ezartzen dizkielako guztiei.

Hala ere, salatutako merkataritza-etxeak, eskusiban banatzen duen bere argitalpen-funtseko egunkari eta aldizkariaren ahalik eta ale gehien helarazteko kontsumitzaileari, hornikuntzako merkataritza-kontratu hitzartzen du Bizkaiko Lurralde Historiko osoan dauden hainbat salmenta-puntuekin. Harreman juridiko horretan ez dio produktua saltzeko eskusibotasun-baldintzarik ezartzen salmenta-puntu bakoitzari, eta ez du debekurik ez zigor-klausularik ezartzen salmenta-puntuak hirugarrenak erabiltzen baditu egunkari eta aldizkariak beste salmenta-puntu batzuetan saltzeko. Hau da, BERALAN banatzaileak salmenta-puntuaren merkataritza-sarea eratu du lurralde historiko guztian, eta hornikuntzako kontratu-harremana ezartzen du horiekin. Bertan, prentsa hornitu eta salmenta-puntuak saldu ez dituen aleak kentzeko betebeharra onartzen du, baita komisio bat ordaintzeko ere, saldutako produktuaren kopuru edo/eta kategoriaren arabera. Bestalde, salmenta-puntuak konpromisoa hartzen dute salmenta-puntua prentsa dagoen egun guztietan irekitzeko, fidantza



eratzeko, bere esku utzitako aleak saltzeko betebeharra betetzeko, eta saldutako aleengatiko komisioa kobratzeko.

Gainera, egunkari eta aldizkarien salmenta-puntuak izenekoek ez dute eskusibotasunik BERALANek banatutako produktuak merkaturatzeko. Izan ere, egunkari eta aldizkarien banatzaileak askatasuna ematen die salmenta-puntuei BERALANek emandako egunkari eta aldizkariak saltzeko, eta ez du eragiketa hori egiteko modua antolatu ez zehazten, guztiz edo zati batean bertan egin behar dela ere ez dioela. Hala eta guztiz ere, argi uzten du merkaturatu nahi den objektuaren gaineko erantzukizun juridiko eta ekonomikoak salmenta-puntuetan bakarrik egongo direla. Halaber, gogorarazi beharra dago salmenta-puntu izenekoek ez dituztela modu egonkorrean eskuratzen BERALANek hornitutako egunkari eta aldizkariak, baizik eta saltzen ez dituztenak itzul ditzaketela; beraz, ez dute ezertarako erabili ezin diren saldu gabeko produktuekin geratzeko arriskurik, beste merkataritza-operadore batzuek badutela arrisku hori.

Horrenbestez, banatzaileak ez die inolako debeku edo mugarik ezartzen hitzartutako salmenta-puntuei, eta nolana ere salmenta-puntuak dira BERALANen aurreko arduradunak ikuspegi juridiko eta ekonomikotik.

- 18.** Zalantzarik gabe, Lehiaren Batzorde Nazionalak 2011ko ekainaren 30eko DISTRIBUCION PRENSA Y REVISTAS izeneko Ebazpenean adierazi zuen bezala, *enpresa horien interesaren arabera izango da produktua ahalik eta baldintza onenetan banatzeko aukera ematen dion banaketa-sare lehiakorra izatea.* “

Gainera, honakoa dio aipatutako ebazpenak:

“... lehiaren ikuspegitik ez da gaitzesgarria nagusitasunezko egoeran dagoen banatzaile batek txikizkako salmentarako puntuak hautatzea, betiere ikuspegi ekonomikotik objektiboak eta arrazoizkoak diren irizpideen arabera egiten badu eta txikizkako merkatuan ez badu lehia modu arbitrarioan eta interes orokorraren kontra murrizten.”

- 19.** Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak aztertutako espedientean banatzaileak inola ere ez die hornikuntza ukatu salmenta-puntuei. Halaber, salaketan ez da zalantzan jarri salmenta-puntuak objektiboki eta arrazoiz hautatu direnik ikuspegi ekonomikotik.

Zalantzan jarri den gauza bakarra, eta salatzaileak uste du nagusitasunezko egoeraren abusua dela, BERALANek kontratatutako salmenta-puntuek eurek saltzeko hornitzen zaizkien egunkari eta aldizkariak saltzeko jarduera hirugarrenekin azpikontratatu ahal izatea da, ez dituztela salmenta-puntuek dituzten baldintzak. Hain zuzen ere, nagusitasunezko egoeraren abusua egin dela uste da merkataritza-harremanetan baldintza ezberdinak aplikatu direlako prestazio baliokideetarako.



Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia ezin da ados egon iritzi juridiko horrekin, BERALAN banatzaileak salmenta-puntuak izenekoekin bakarrik ezartzen duelako hornikuntza-kontratua, eta horiekin bakarrik dituelako kontratutik eratorritako harreman juridiko eta ekonomikoak. Gauzak horrela, eta aldean artean hornikuntza-kontratua egitearen ondorioz, salmenta-puntuek fidantza bat eratu beharko dute banatzaileak gordailuan aurreratzen dizkien material eta prentsako stocken ondorioz hartutako diru-erantzukizunak bermatzeko, baita produktua garraiatzeko modua aukeratu eta fakturen ordainketen bankuko helbideratzeak egin ere. Banatzaileak, bestalde, bere argitalpen-funtsetik eskatutako egunkari eta aldizkariak eman beharko dizkie, sal ditzaten, baita saldu ez den produktua bildu eta salmentatik eratorritako komisioa ordaindu ere.

Orain arte aipatutakoaren artean ez da ezer gaitzetsi behar lehiaren defentsaren ikuspegitik banatzailearen eta salmenta-puntuen arteko merkataritza-harremanei dagokienez. Izan ere, aztertutakoan ez da ikusi monopolistak duen nagusitasunezko egoera kudeatzeko duen erantzukizuna eraldatu edo behartzen duen jokabiderik ez Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 2.2.d artikulua urratu denik. Prentsa banatzeko ereduazko kontratuaren arabera, BERALANen bezero guztiek merkataritza-baldintza berberak dituzte, eta bat ere ezin da gehiegizkotzat hartu merkaturan lehiaren kalterako.

- 20.** Salatzaileak uste du gaitzespen juridikoa, lehiaren defentsaren ikuspegitik, banatzaileari egin behar zaiola, baimendu edo onartu egiten duelako salmenta-puntuak ez diren merkataritza-agenteeek saltzea produktu eskusiboa, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2. artikulua urratuz. Ezin da ados egon salatzaileak azaldutako argudioarekin. Gauzak horrela, LDEA honek adierazi behar du hornikuntzako merkataritza-harremanak BERALANek bakarrik hasten dituela salmenta-puntuekin, eta banatzaileak ez dituela ezartzen merkaturatzeko moduak, eta ez dituela salmenta-puntuekin ituntzen. Are gehiago, ez da sartzen salmenta-puntu horiek hirugarrenekin dituzten harreman juridikoekin, nahiz eta ez dituen debekatzen ez zigortzen. Produktua saltzeko arduradun bakarra, BERALANen aurrean, salmenta-puntua da, eta horren aurrean hartzen ditu betebeharrak juridiko eta ekonomikoak, ez beste inoren aurrean. Salmenta-puntuak hirugarrenen laguntza bilatzen badu BERALANek hornitu dion produktua saltzeko, harreman horiek ez dute inolako zerikusirik berarekin, eta ikuspegi ekonomikotik azpikontratatuak salmenta-puntuaren merkataritza-marjinan parte hartzen du.
- 21.** Era beran, ezin da ados egon salatzaileak erabilitako baieztapen honekin: adierazi du lotutako merkatu bat sortu dela egunkari eta aldizkariak saltzeko merkaturan, okindegien merkatua, eta horrek aukera eman diela egunkariak saltzeko merkaturan parte hartzeko, baina beste baldintza batzuekin.



Lehenengo eta behin adierazi behar da, arestiko paragrafoetan ikusi den bezala, salmenta-puntuen kontzeptua ez dela bakarrik prentsa-kioskoetarako erabiltzen, beste establezimendu batzuk ere sar daitezkeela bertan, esaterako okindegiak.

Okindegiak salmenta-puntu izan daitezke eta, gainera, adierazi beharra dago salmenta-puntuek horrelako merkataritza-establezimenduak azpikontrata ditzaketela, salbuespenik gabe, BERALANek hornitutako produktua merkaturatzeko. Bada, hori ez da egunkari eta aldizkarien salmentari lotutako merkatua, produktu hori saltzeko merkatua bera baizik. Gainera, okindegiez gain, ostalaritzako establezimenduak, eskankoak, etab. ere kontrata daitezke horretarako, eta horrek ez du esan nahi egunkari eta aldizkariak saltzeko merkatu ezberdinak daudenik merkaturatzen duenaren izaeraren arabera (okindegia, taberna, egokitasuneko denda, gasolina-zerbitzugunea...), baizik eta merkatu bakar bat, hau da, BERALANen argitalpen-funtseko egunkari eta aldizkariak saltzeko merkatua.

Azkenik, aipatu behar da salmenta-puntu izenekoek hirugarrenekin kontratatzen badute BERALANek hornitzen dien argitalpen-funtseko egunkari eta aldizkariak merkaturatzeko lana, ezin dela ondorioztatu prestazio baliokiderik dagoenik azpikontratugilearen eta azpikontratatuaren artean.

- 22.** Jurisprudentziak onartu egiten du nagusitasuna jasaten duen merkaturan egindako abusu batek eragina izan dezakeela beste merkatu batean (Tetra Pak Internacional S.A. vs. Batzordea; Gaia: C-333/94). Hain zuzen ere, lotutako merkatuetako abusua eragiten da merkatu batean nagusitasunezko egoera duen enpresa batek egoera hori beste merkatu batera zabaltzeko edo duen nagusitasuna indartzeko aukera ematen dion jokabidea garatzen duenean. Horretarako hainbat betekizun bete behar dira: a) Enpresa horrek nagusitasunezko egoera izan behar du ordezkotik eraginkorrik ez duen ondasunen baten gainean; b) Merkatu bien arteko lotura estua izan behar du, nagusitasuna jasaten duen merkatuak benetako eragina eduki ahal izan dezan lotutako merkatuko lehian; eta c) Nagusitasuna duen enpresak lotutako merkatura zabaldun ahal izango du boterea, lehia ahulagoa izan dadin.

Egia da BERALAN S.L.k nagusitasunezko egoera duela bere argitalpen-funtseko egunkari eta aldizkarien handizkako banaketan, baina ezin da esan salmenta-puntuekin hitzartzen dituen egunkari eta aldizkariak hornitzeko kontratuen bitartez (horien baldintzak arestian azaldu dira) beste merkatu batera (egunkari eta aldizkariak saltzeko merkatura) zabaldun nahi duenik nagusitasunezko egoera hori. Izan ere, nahita egin dio uko merkatu horretan parte hartzeari, ez delako bertikalean sartu merkatu horretan eta hirugarrenekin hitzartu duelako produktu hori besterentzeko lana, inolako murrizketa ez debekurik ezarri gabe, produktua hornitu eta saltzeko aldeak lotzen dituzten baldintzak zorrotz betetzea besterik ez. Horrenbestez, ezin



da esan BERALANek nagusitasunezko egoeraren abusua egin duenik egunkari eta aldizkariak saltzeko merkatuan, eta are gutxiago salmentapuntuek hirugarrenekin egindako barneko harreman juridiko eta ekonomikoen baitan, BERALANek ez baitu inolako zerikusirik harreman horietan.

- 23.** Ez dagoenez Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2. artikulua debekatzen dituen lehia murrizteko jardunbideen zantzurik, LDEAren Osoko Bilkurak uste du zuzenbidearen arabera dela PRENTSA-BANAKETA BIZKAIAN izenarekin eta 7/2011 zenbakiarekin LDEZn tramitatu den espedientearekin lotuta egindako jarduerak artxibatzeko proposamena.



EBAZPENA

BAKARRA: Onetsi egingo da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren ebazpen-proposamena, zehapen-espediterik ez irekitzeko.

Ebazpen hau LDEZri, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko abenduaren 30a

LEHENDAKARIA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

LEHENDAKARIORDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

KIDEA
M^a PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI